Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

Boletín Oficial de Gipuzkoa

2017ko otsailaren 16a, osteguna — 33 — Jueves, a 16 de febrero de 2017



## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

### INGURUMENEKO ETA OBRA HIDRAULIKOETAKO DEPARTAMENTUA

*Leaburu-Txaramako HAPOri dagokion ingurumen adierazpen estrategikoa.*

Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako departamentuko foru diputatuak, 2017ko urtarrilaren 31ko datarekin, ondoren argitaratzen den Foru Agindua eman zuen:

«1. *Aurrekariak.*

2014ko abuztuaren 4an, Leaburu-Txaramako Udalak, idatzi baten bidez, Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren –aurrerantzean HAPO– erreferentziako agiria egiteko eskatu zion Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza Nagusiari. Eta, xede horrekin, 211/2012 Dekretuaren 8. artikuluan ezarritako aurrekaria eta hasierako agiria erantsi zizkion idatziari.

Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza Nagusi honek, 2012ko uztailaren 22ko 211/2012 Dekretuak 10. artikuluan xedatutakoa betez, 2015eko apirilaren 21ean egin zuen aipatutako erreferentziako agiria. Horretan, egindako kontsultei emandako erantzunak jakinarazteaz gain, planaren aplikazio esparruan dauden eta ingurumen arloan interes berezia duten baliabideak eta eremuak identifikatu ziren, eta gainera, ingurumen iraunkortasunaren txostenak izan beharreko edukia eta helmena eman ziren jakitera.

Gero, 2016ko uztailaren 29an, Leaburu-Txaramako Udalak HAPOren espediente administratiboaren kopia bat eta dokumentazioa bidali zituen, ingurumen ebaluazioari buruzko 21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, 25. artikuluan aipatutako ingurumen adierazpen estrategikoa egiteko –211/2012 Dekretuaren 13. artikuluan ingurumen txostena ere esaten zaion hori–.

2. *Erreferentziako agiria egin eta kontsulten emaitza txertatu ondoren, dokumentuan egin diren aldaketak ingurumenaren ikuspegitik baloratzea.*

Leaburu-Txaramako Udalak 2015eko urrian hasierako onespenerako egindako agiria aurkeztu du; eta horrekin batera, Euskadiko lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak era horretako planetarako exijitzen dituen dokumentuak: memoria informatiboa eta justifikatiboa, planoak, hirigintza arau orokorrak eta bereziak, hirigintza ondarearen katalogoa, ingurumeneko iraunkortasun txostena eta bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioaren azterketa. Era berean, dokumentazio osagarria ere bidali du, 2016ko ekainekoa. Dokumentazio horretan ageri dira hasierako onespenerako agirian egindako aldaketak, hain zuzen ere hasierako onespenerako agiria jendaurrean ikusgai egon den bitartean aurkeztu diren eta udal korporazioak ontzat eman dituen alegazioak txertatzeko, eta administrazio eskudunek beren txosten sektorialetan ezarritako zehaztapenak sartzeko.

Ingurumeneko Zuzendaritza erreferentziako agiria egiten ari zen bitartean, eta Euskadiko lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak 90. artikuluan xedatutakoa betez, Udalak jendaurrean ikusgai jarri zituen aurrerakina eta hasierako onespe-

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

### DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y OBRAS HIDRÁULICAS

*Declaración ambiental estratégica respecto al PGOU de Leaburu-Txarama.*

El Diputado Foral del Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas ha dictado con fecha de 31 de enero de 2017 la Orden Foral que a continuación se publica:

«1. *Antecedentes.*

Mediante escrito del 4 de agosto de 2014, el ayuntamiento de Leaburu-Txarama solicitó a la Dirección de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas de la Diputación Foral de Gipuzkoa la emisión del documento de referencia del Plan General de Ordenación Urbana –PGOU en adelante–. A este efecto, junto con el escrito se remitió el avance y el documento de inicio establecido en el artículo 8 del Decreto 211/2012.

Con fecha 21 de abril de 2015, esta Dirección de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas emitió el documento de referencia en cumplimiento del artículo 10 del Decreto 211/2012, de 22 de julio, en el que se daba traslado de las respuestas a las consultas efectuadas, se señalaban los criterios ambientales estratégicos, se identificaban los recursos y espacios de especial interés ambiental que se encuentran dentro del ámbito de aplicación del plan y se señalaba el contenido y alcance que debía tener el informe de sostenibilidad ambiental.

Posteriormente, con fecha 29 de julio de 2016, el ayuntamiento de Leaburu-Txarama remite para la emisión de la declaración ambiental estratégica del artículo 25 de la Ley 21/2013, de 9 de diciembre, de evaluación ambiental, también denominada memoria ambiental en el artículo 13 del Decreto 211/2012, una copia del expediente administrativo y la documentación del PGOU.

2. *Valoración desde la perspectiva ambiental de los cambios realizados tras la emisión del documento de referencia así como de la integración del resultado de las consultas.*

El ayuntamiento de Leaburu-Txarama ha remitido el documento de aprobación inicial de octubre de 2015 con los documentos que la Ley 2/2006, de Suelo y Urbanismo, del País Vasco exige a este tipo de planes: la memoria informativa y justificativa, planos, normas urbanísticas generales y particulares, el catálogo del patrimonio urbanístico, el informe de sostenibilidad ambiental y el estudio de viabilidad económico-financiera. Asimismo, remite una documentación complementaria de junio de 2016 donde se establece las modificaciones que se introducen en el documento de aprobación inicial para incorporar, tanto las alegaciones formuladas durante el periodo de exposición pública del documento de aprobación inicial que han sido estimadas por la corporación municipal, como las determinaciones establecidas por las administraciones competentes en sus informes sectoriales.

En cumplimiento del artículo 90 de la Ley 2/2006, de Suelo y Urbanismo, del País Vasco y mientras la Dirección de Medio Ambiente estaba en el proceso de emisión del documento de referencia, el ayuntamiento sometió el avance y el documento

EK\CV GAO-I-2017-00870

nerako agiria. Agiria ikusgai egon zen epe horretan 18 alegazio aurkeztu zituzten; horietako batzuetan eragozpenak erakutsi ziren Leaburuko herrigunearen ekialdean proposatutako bizitegi kolektiboko bi bloke egitearen aurka. Hori horrela, hasierako onespenerako agirian berriro aztertu ziren Leaburuko herrigune-ari begira aurrerakinean proposatutako garapen aukerak. Hala, arearen izena mantendu bazen ere –A.1.4 Dorre Berri– tasatutako bizitegi kolektiboaren proposamen hori lekuz aldatu zen; hain zuzen ere, ekialdeko hegoaldeko hegira aldatu zen, lehendik bazen lur gaineko aparkalekuaren ondora, nahiz eta aurrerakinean 3. hautabide gisa planteatutako kokaleku hori hasiera batean baztertua zen. Bestetik, antolamendu proposamen berri horretan, ekialdeko hegia oso-osorik espazio libreen sistema orokor gisa (1.8 area, Parkea) mantentzea erabaki zen.

Gero, Euskadiko lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak 90. artikuluan xedatutakoa betetzearren berriro ere, Udalak erabaki zuen HAPOren hasierako onespenerako agiria 60 egunez jendaurrean ikusgai jartzea, eta eskumen sektorialak dituzten administrazio publikoei bidezko kontsultak egitea. Jendaurreko informazio horri dagokionez honakoa nabarmendu behar da: erreferentziako agiriaren 8. apartatuan bestelakorik ezartzen bazen ere, oraingo honetan ez ziren kontsultatu Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusi honek erreferentziako agiria idazteko kontsultatu zituen erakunde eta pertsona guztiak.

Jendaurreko informazio-epe berri horretan hamahiru alegazio aurkeztu zituzten eta, horien ondorioz, aldaketa batzuk egin ziren HAPOren hasierako onespenerako agirian. Batzuk nabarmentzearren:

— Azkenean bere lurra garatzeko interesik ez zuten jabeek hala eskatuta, A.1.3 Aizepe hiri antolamenduko esparrua ezabatu egin zen, eta A.1.4 Dorre Berri esparruaren antolamendua, berriz, talde idazleak proposatutako irtenbide berriaren arabera egokitu zen, bere azalera 1.515 m$^2$-ra murriztuta.

— A.1.10 Eliza hiri antolamenduko esparrua A.1.3 Eliza izatera pasa zen, eta bere azalera handitu egin zen 2.005 m$^2$ osatu arte; izan ere, eliz parrokiaz gain, errektore-etxea, honen aldameneko baratzea eta garai bateko hilerria ere esparru horretan sartu baitziren, lehen A.1.5 Plaza Inguruan arean zeudenak guztiak ere. Hori horrela, errektore-etxeko bizitegi garapena (3 etxebizitza) A.1.3 Eliza arean geratu da, eta A.1.5 Plaza Inguruan arearen azalera 11.122 m$^2$-ra murriztu da.

— Txarama auzoan A.3.2 Plaza Berri esparrua gehiago garatzeko, eraikigarritasun haztatua areagotu egin da; eta hala, hasieran 18 etxebizitza aurreikusi baziren ere, orain 20 etxebizitza izango dira, lehendik bazeuden 15 etxebizitzekin batera.

— Hirigintza arau orokorretako 55. artikulua. Nekazaritza ustiategiak aldatu egin da, hain zuzen ere nekazaritza jarduerei lotutako eraikinek eta nekazaritza ustiategiko jarduera osagarriak garatzeko eraikinek bete beharreko baldintzak bereizi ahal izateko, 515/2009 Dekretuari lotuak dauden ala ez begiratuta.

Bestetik, eskumen sektorialak dituzten administrazio publikoei egindako kontsulten ondorioz, honako aldaketak egin dira hasierako onespenerako agirian:

— Hirigintza arau orokorretako 26. artikulua aldatu eta 2014ko maiatzaren 9ko Telekomunikazioen Lege Orokorrean xedatutakora egokitu da, Industria, Energia eta Turismo Ministerioaren txostenean ezarritakoa betetzearren.

— Memorian aldaketak egin dira arauetako 98. Ondasun eta elementu katalogatuak babesteko araubide orokorra eta 99. Hirigintza ondareko ondasun eta elementuak babesteko araubidea artikuluetan, eta Hirigintza Ondarearen Katalogoan, hain zuzen ere Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikako Sailaren txostenean eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura,

de inicio a un periodo de exposición pública. En dicho periodo, se presentaron 18 alegaciones, algunas de las cuales presentaban objeciones al desarrollo de dos bloques de vivienda colectiva al este del ámbito Leaburuko herrigunea. En consecuencia, en el documento de aprobación inicial se produjo un replanteamiento de las alternativas de desarrollo propuestas en el avance en el núcleo de Leaburu, de tal forma que, aunque se mantuvo la denominación del área –A.1.4 Torre Berri–, se trasladó esta propuesta de vivienda colectiva tasada, de la zona este a la ladera sur, al lado del aparcamiento en superficie existente, localización ésta que con la denominación de alternativa 3 en el avance había sido rechazada inicialmente. Por su parte, en esta nueva propuesta de ordenación, la ladera este se decidió mantenerla en su conjunto como sistema general de espacios libres (área 1.8. Parkea).

Posteriormente, también en cumplimiento del artículo 90 de Ley 2/2006, de Suelo y Urbanismo, del País Vasco, el ayuntamiento sometió al documento de aprobación inicial del PGOU durante 60 días al trámite de información pública, así como de consulta a las administraciones públicas con competencias sectoriales. Respecto a este procedimiento de información pública, sí se quiere hacer notar que, a diferencia de lo que se establecía en el apartado 8 del documento de referencia, no se ha procedido a consultar a la totalidad de las entidades y personas que sí lo fueron por esta Dirección General de Medio Ambiente para la redacción de este documento de referencia.

Este nuevo periodo de información pública acabó con trece alegaciones que dieron lugar a una serie de modificaciones en el documento de aprobación inicial del PGOU, de las que se resaltarán las siguientes:

— A petición de los propietarios del terreno finalmente no interesados en su desarrollo, se suprime el ámbito de ordenación urbana A.1.3 Aizepe y se adapta la ordenación del ámbito A.1.4 Torre Berri de acuerdo a la nueva solución planteada por el equipo redactor, disminuyendo su superficie hasta los 1.515 m$^2$.

— El ámbito de ordenación urbana A.1.10 Eliza pasa a denominarse A.1.3 Eliza e incrementa su superficie hasta los 2.005 m$^2$ para incorporar, además de la iglesia parroquial, la casa rectoral, la huerta contigua a la misma y el antiguo cementerio, todos ellos anteriormente incluidos en el área A.1.5 Plaza Inguruan. En consecuencia, el desarrollo residencial en la casa rectoral (3 viviendas) pasa a enclavarse en el área A.1.3 Eliza y la superficie de A.1.5 Plaza Inguruan se reduce hasta los 11.122 m$^2$.

— Con el fin de facilitar en mayor medida el desarrollo del ámbito A.3.2 Plaza Berri en Txarama Auzoa, se incrementa la edificabilidad ponderada, de tal forma que de las 18 viviendas previstas inicialmente previstas se pasa a 20 viviendas que se unirán a las 15 ya existentes.

— Se modifica el artículo 55 Explotaciones agrarias de las normas urbanísticas generales para diferenciar las condiciones que deben cumplir las edificaciones vinculadas a las actividades agrarias y al desarrollo de las actividades complementarias de la explotación agraria dependiendo de que estén sujetas al Decreto 515/2009 o no.

En cuanto a la consulta a las administraciones públicas con competencias sectoriales, ha dado lugar a las siguientes modificaciones en el documento de aprobación inicial:

— Se modifica el artículo 26 de las normas urbanísticas generales para acomodarlo a lo dispuesto en la Ley General de Telecomunicaciones, de 9 de mayo de 2014, en cumplimiento de lo establecido por el Ministerio de Industria, Energía y Turismo en su informe.

— Se introducen modificaciones en la memoria, en los artículos 98 Régimen general de protección de los bienes y elementos catalogados y 99 Régimen de protección de los bienes y elementos del patrimonio urbanístico de las normas y en el Catálogo del Patrimonio Urbanístico para responder a las recomendaciones establecidas en los informes del Departamento de

EK\CV GAO-I-2017-00870

Turismoa, Gazteria eta Kirola Departamentuaren txostenean egindako gomendioak betetzearren.

— URA agentziaren eta Kantauriko Ur Konfederazioaren txostenetan ezarritako zehaztapenak betez:

* A.3. Txarama Auzoa areako A.3.2 Plaza Berri esparruaren antolamendua aldatu egin da, komunitatearen ekipamenduko sistema lokala «500 urteko errepika-aldiko uholde arriskuko eremuan» kokatzeko.

* Txarama Auzoa esparruaren eta Lau-Haizeta Industrialdea esparruaren hirigintza fitxetan uholde arriskuak kontuan hartzeko betebeharra sartu da; eta ondorioz, esparru horietan bete egin behar da bai EAEko ibai eta erreken LAParen 1. aldaketako araudian eta bai Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoaren (2015-2021) araudian uholdeen aurka babesteko ezarritako araudi espezifikoa. Era berean, arroaren erakundeari baimen administratiboa eskatu beharko zaio, baldin eta ur jabari publikoa uki dezaketen jarduerak, edota jabari horren zorpeneko edo kontroleko eremuetan jarduerak egin nahi badira.

* Mugatutako hirigintza esparruetako bakoitzaren hirigintza fitxetan, arroako erakundean aldez aurretik bidezko eskaera egitera eta isurpen adierazpena aurkeztera baldintzatzen da esparrua urbanizatzeko lizentzia. Era berean, garapen berriak gauzatuko badira, HAPOn aurreikusitako estolderia eta isurpen instalazioak martxan egon beharko dute aldez aurretik, Lau-Haizeta Industrialdea arean izan ezik; izan ere, kasu honetan, jardueran sortutako urek tratamendu espezifiko bat jaso beharko dute saneamendu sarera isuri aurretik.

* Ingurumeneko Iraunkortasun Txostenean, udalerriko ur masen egoera ekologikoari eta kalitateari buruzko informazioa eguneratu egin da, EAEko ur masen egoeraren Jarraipen Sarearen 2014ko kanpainako datuekin.

* Hirigintza arau orokorretako 13. Babes Bereziko kategoriari dagokion D.1 zona orokorraren araubide orokorra artikuluan txertatu egin dira Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoan (2015-2021) jasota dauden eta gune babestuetan hornidurarako ur hartuneak baimentzeko edo emakidak egiteko izapideekin zerikusia duten xedapenak.

Hasierako onespenerako agiriari arestian aipatutako aldaketak txertatzearekin, eta aurrerakinean aurkeztutako proposamenak HAPO izapidetzeko prozesuan zehar hobeto zehaztearekin, udal barrutia beste era batera antolatuta geratu da. Hauek dira antolamendu berri horren ezaugarri nagusiak:

— Bizitegi garapenak:

* Leaburuko Herri gunea. Bere azalera murriztu egin da, hasieran 41.275 m$^2$ izatetik 35.998 m$^2$ izatera pasa da. 20 etxebizitza berri eraikitzea proposatzen da, 4 areatan: A.1.1. Bentaburu (dentsitate txikiko 4 etxebizitza), A.1.2 Elizpe (dentsitate txikiko 4 etxebizitza), A.1.3 Eliza (2 etxebizitza berri lehendik zutik dagoen Erretoretxe eraikinean) eta A.1.4 Dorre Berri (10 etxebizitza erakuntza irekian).

* Leaburuko Txaleten Zona. Bere azalera murriztu egin da, hasieran 11.700 m$^2$ izatetik 11.200 m$^2$ izatera pasa da. HAPOn finkatu egin dira lehendik bazeuden bizitegi erabilerako asentamenduak eta, gainera, bizitegirako hiru lurzati berri aurreikusi dira, dentsitate txikiko 6 etxebizitza berri eraikitzeko. Aurrerakinean 35 etxebizitza berri proposatzen ziren area honetarako eta Leaburuko Herri Gunea eremurako; beraz, murriztu egin da bi eremu horientzako batera proposatutako bizitegi garapena.

* Txarama Auzoa. Bere azalera murriztu egin da, hasieran 23.225 m$^2$ izatetik 22.900 m$^2$ izatera pasa da. Bizitegiak A.3.2 Plaza Berri esparruan garatuko dira, zeren eta oraingo 15 etxe-

Educación, Política Lingüística y Cultura del Gobierno Vasco y del Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

— En cumplimiento de las determinaciones del informe de URA y de la Confederación Hidrográfica del Cantábrico:

* Se modifica la ordenación del ámbito A.3.2 Plaza Berri del Área A.3. Txarama Auzoa para ubicar el Sistema Local de Equipamiento Comunitario en la «Zona inundable con periodo de retorno de 500 años».

* Se introduce en las fichas urbanísticas de los ámbitos Txarama Auzoa y Lau-Haizeta Industrialdea la obligación de tener en cuenta los riesgos de inundabilidad y, por tanto, cumplir con la Normativa específica sobre protección contra inundaciones incluida en la Normativa, tanto de la 1.ª modificación del PTS de Ríos y Arroyos de la CAPV como en la del Plan Hidrológico de la Demarcación Hidrográfica del Cantábrico Oriental (2015-2021). Asimismo, se establece la necesidad de pedir autorización administrativa al organismo de cuenca en el caso de querer llevar a cabo actuaciones que afecten al dominio público hidráulico o se sitúen en sus zonas de servidumbre o policía.

* En las fichas urbanísticas de cada uno de los ámbitos urbanísticos delimitados, se condiciona la concesión de la licencia para la urbanización del ámbito a la presentación previa de la solicitud y declaración del vertido ante el organismo de cuenca. Asimismo, se condiciona la ejecución de los nuevos desarrollos a la previa operatividad de las instalaciones de saneamiento y vertido previstas en el PGOU, excepto en el caso del área Lau-Haizeta Industrialdea, para la que se establece la necesidad de que las aguas procedentes de la actividad se sometan a un tratamiento específico previo a su vertido a la red de saneamiento.

* Se actualiza en el Informe de Sostenibilidad Ambiental la información acerca del estado ecológico y calidad de las masas de aguas presentes en el municipio con los datos de la campaña 2014 de la Red de Seguimiento del estado de las masas de agua de la CAPV.

* En el artículo 13 Régimen general de la zona global D.1 Zona Correspondiente a la Categoría de Protección Especial de las normas urbanísticas generales se incorporan las determinaciones del Plan Hidrológico de la Demarcación Hidrográfica del Cantábrico Oriental (2015-2021) que afectan a la tramitación de concesiones o autorizaciones en zonas protegidas de captación de agua para abastecimiento.

La incorporación de las anteriores modificaciones al documento para aprobación provisional junto con la mejor definición de las propuestas presentadas en el avance durante el proceso de tramitación del PGOU, han dado lugar a una ordenación del término municipal cuyas características fundamentales son las siguientes:

— Desarrollos residenciales:

* Leaburuko Herri gunea. Se reduce su superficie desde los 41.275 m$^2$ iniciales hasta 35.998 m$^2$. Se propone la edificación de 20 nuevas viviendas en 4 áreas: A.1.1. Bentaburu (4 viviendas de baja densidad), A.1.2 Elizpe (4 viviendas de baja densidad), A.1.3 Eliza (2 nuevas viviendas en el edificio ya existente de Erretoretxe) y A.1.4 Torre Berri (10 viviendas en edificación abierta).

* Leaburuko Txaleten Zona. Se reduce su superficie desde los 11.700 m$^2$ iniciales a 11.200 m$^2$. El PGOU consolida los asentamientos residenciales existentes y prevé tres nuevas parcelas residenciales para 6 nuevas viviendas de baja densidad. En el avance, se proponían, para esta área junto con la Leaburuko Herri Gunea, 35 nuevas viviendas, con lo que se ha reducido la propuesta residencial conjunta de ambas.

* Txarama Auzoa. Se reduce su superficie desde los 23.225 m$^2$ a 22.900 m$^2$. El desarrollo residencial se da en el ámbito A.3.2 Plaza Berri donde a las 15 viviendas ya existentes,

EK\CV GAO-I-2017-00870

bizitzei beste 20 erantsiko baitzaizkie eraikuntza irekian. A.3.1 Benta eremua, berriz, bere gaur egungo baldintzetan finkatuko da, nahiz eta eraistea baimenduko den; halakorik eginez gero, beste bi etxebizitza egiteko aukera egongo litzateke.

— Jarduera ekonomikoen garapenak: Aurrerakinean bezalaxe, jarduera ekonomikoetarako eremu berririk ez da planteatu; aitzitik, erabilera horietara bideratutako azalera murriztu egin da, zeren eta Telleri industri-lurrari sailkapen kendu egin baitzaio, eta Sarritz eremua bizitegirako hiri-lurzoru bihurtu. Beraz, industri eremu bakarrak jada finkatuak daudenak izango dira: udalaz gaindiko Apatta Erreka industrialdea eta Lau-Haizeta Industrialdea esparrua, Txarama auzoan dagoena. Esparru honetan daude Zuhaizki SAL enpresak hartzen dituen sailak. Enpresa hori 1997az geroztik lanean bete-betean ari bada ere, bere garaian indarrean zegoen legeriaz kanpo urbanizatu zen; beraz, ez ditu hiri antolamenduak exijitzen dituen zuzkidurak. Antolamendu berriaren helburua da Txarama auzoaren eta industrialdearen irisgarritasuna hobetzea, erabilera eta jabari publikoko aparkalekua lortzea, ibai ekosistema babestea eta, ahal den neurrian, leheneratzea, eta Kultur Ondarearen Katalogoan sartuak dauden hainbat elementu –Araxes paper-fabrikaren azpiegitura hidraulikoari dagozkionak– erabilera eta jabari publikora pasatzea.

— Lurzoru urbanizaezinaren antolamendua. Mantendu egin dira aurrerakinean bereizitako lurzoru urbanizaezineko 5 kategoria handiak: Babes berezia, Lur gaineko uren babesa, Ingurumenaren hobekuntza, Basogintza, Nekazaritza eta abeltzaintzako eremua eta landazabala. Baina kategoria horien definizioan aldaketa hauek egin dira:

* Babes berezia: lurzoru urbanizaezineko kalifikazio honetatik baztertu egin du Interes geologikoko eremuak azpikategoria, Gaztelu-Berastegi multzo karstikoa babesten zuena, eta baldintzatzaile gainjarria izatera pasa da orain. Gainera, Kontserbatzeko interes handia duten baso-masak azpikategoria sartu da. Honetan, udalerrian dagoen batasunaren intereseko habitateko baso-masa bakarra babestuko da (9340 Quercus Ilex eta Quercus rotundifolia basoak), Leaburuko herrigunearen ondoan dagoena.

* Nekazaritza eta abeltzaintzako eremua eta landazabala: aurreko Balio estrategiko handia eta Trantsizioko landa paisaia azpikategoriei Balio estrategiko handiko nekazaritza ustiategia izenekoa erantsi zaie. Honetan babestuko dira Maala baserriko sailak eta honen inguruko lurzatiak, batez ere segarako belardietarako eta larrerako erabiltzen direnak.

Gainera, gorago aipatutako Interes geologikoko puntuak izeneko eremuez gain, gainjarritako baldintzatzaileei erantsi zaizkie honako hauek ere:

* Eremu higagarriak: hauetan sartzen dira %50etik gorako malda duten hegiak, eta lerradura arriskuak erakusten dituzten beste zenbait eremu ere.

* EAEko korridore ekologikoen sarea. Udal mailako korridore ekologiko bat mugatu da Maala errekaren eta Araxes ibaia KBErekin lotzen duen ibarraren inguruan; bai eta Euskal Eurohiriko korridoreen azterketatik ondorioztatu den biodibertsitate erreserba bat ere. Erreserba eta korridore berri hori bat datoz, neurri handi batean, EAEko korridore ekologikoen sareko moteltze eremuarekin.

Behin-behineko onespenerako agiriari erantsi zaion udal barrutirako antolamendu hau eta erreferentziako agiria egiteko aztertu zen aurrerakina, ingurumenaren ikuspegitik alderatzen badugu, esan daiteke behin-behineko onesperako agiria onuragarria dela; izan ere, besteak beste:

* Leaburuko Herri Gunea eta Leaburuko Txaleten Zona izeneko bizitegi esparruetan, hiri-lurzoru gisa kalifikatutako azalera gutxitu egin da; eta ondorioz murriztu egin da batasunaren intereseko habitatek gaineko eragina –batez ere 6510 (Segarako belardi pobreak eta askoz ere maila apalagoan 9340

se añaden 20 más en edificación abierta. En cuanto al A.3.1 Benta, se consolida en sus actuales condiciones, aunque se permite su derribo y la posibilidad, en ese caso de incrementar el número de viviendas en dos.

— Desarrollos de actividades económicas: Como en el avance, no se plantean nuevas áreas de actividades económicas, sino que se reduce su superficie al desclasificar el suelo industrial de Telleri y convertir a la zona de Sarritz en un suelo urbano residencial. Por tanto, los ámbitos industriales quedan reducidos a las áreas ya consolidadas: el área industrial supramunicipal de Apatta Erreka y el ámbito Lau-Haizeta Industrialdea situado en el barrio de Txarama. Este ámbito comprende los terrenos ocupados por la empresa Zuhaizki S.A.L que, aunque está en pleno funcionamiento desde el año 1997, desarrolló su urbanización al margen de la legislación vigente en su momento, por lo que no comprende las dotaciones exigidas por la ordenación urbanística. La nueva ordenación pretende mejorar la accesibilidad en el barrio de Txarama y en el área industrial, obtener un aparcamiento de uso y dominio público, facilitar la protección y, en la medida de lo posible, la restauración del ecosistema fluvial e incorporar al uso y dominio público varios elementos incluidos en el Catálogo del Patrimonio Cultural que corresponden a la infraestructura hidráulica de la papelera del Araxes.

— Ordenación del suelo no urbanizable. Mantiene las 5 grandes categorías de suelo no urbanizable diferenciadas en el avance: Especial Protección, Protección de Aguas Superficiales, Mejora Ambiental, Rural Forestal, Agroganadera y Campiña. Sin embargo, introduce las siguientes modificaciones en su definición:

* Especial Protección: elimina de este apartado de la calificación del suelo no urbanizable la subcategoría Áreas de Interés Geológico, que protegía el complejo kárstico de Gaztelu-Berastegi, y que ahora pasa a ser un condicionante superpuesto. Además, incluye la subcategoría Masas forestales autóctonas de gran interés para su conservación que pasa a proteger la única masa del hábitat de interés comunitario 9340 (Bosques de Quercus Ilex y Quercus rotundifolia) del término municipal, la cual se sitúa al lado del núcleo urbano de Leaburu.

* Agroganadera y Campiña: añade a las anteriores subcategorías Alto Valor Estratégico y Paisaje Rural de Transición, una denominada Explotación Agraria de Alto Valor Estratégico que pasa a proteger los pertenecidos del caserío Maala y parcelas de su entorno dedicadas fundamentalmente a praderas de siega y pastos.

En cuanto a los condicionantes superpuestos, se añade, además del anteriormente citado Áreas de interés geológico, los siguientes:

* Áreas erosionables: incluye las laderas que presentan una pendiente superior al 50%, así como otras zonas en las que se han identificado problemas de deslizamientos de ladera.

* Red de Corredores ecológicos de la CAPV. Se delimita un corredor ecológico municipal entorno a la regata y vaguada Maala que conecta la ZEC Río Araxes y una reserva de biodiversidad derivada del estudio de corredores de la Eurociudad Vasca. Esta reserva y nuevo corredor se corresponden en gran medida con la zona de amortiguación de la red de corredores ecológicos de la C.A.P.V.

Si se compara, desde la perspectiva ambiental, esta propuesta de ordenación del término municipal incorporada al documento de aprobación provisional con la del avance, que fue la que se analizó para emitir el documento de referencia, se puede considerar la del documento de aprobación provisional más favorable ya que, entre otros aspectos:

* En los desarrollos residenciales de Leaburuko Herri Gunea y Leaburuko Txaleten Zona, se produce una disminución de la superficie calificada como de suelo urbano, reduciéndose así el impacto sobre hábitats de interés comunitario –principalmente el 6510 (Prados pobres de siega) y en mucho menor

(Quercus Ilex eta Quercus rotundifolia basoak). Era berean, etxebizitza berri gutxiago egitea proposatu da (eskaintza 35 etxebizitzatik 26 etxebizitzara pasa da)–. Diferentzia oso handia ez bada ere, egia da benetako bizileku premiak gaindimentsionatzeko joera ekiditea bilatu dela, zeren eta hori zen, hain zuzen ere, HAPO eratzerakoan aintzat hartu behar zen ingurumen irizpide estrategikoetako bat.

* Txarama Auzoa bizitegi garapenean ere murriztu egin da hiri-lurzoru gisa kalifikatutako azalera, 23.225 m$^2$-tik 22.900 m$^2$-ra pasa baita. Dena den, hasierako onespenerako agirian gutxiago zen oraindik ere –22.655 m$^2$–. Hiri azalera gutxitze horrek murriztu egin du, zertxobait, Araxes ibaiaren KBEak hiri-lurzoruan hartzen duen azalera –2.910 m$^2$-tik 2.859 m$^2$-ra pasa da–. Dena den, kasu honetan ere hasierako onespenerako agirian baino –2.615 m$^2$– handixeagoa da. Bestetik, 91E0* lehentasunezko intereseko habitataren azalera txikiagoa ukitzen da –107 m$^2$ orain, 406 m$^2$ aurrerakinean eta 154 m$^2$ hasierako onespenerako agirian–. Beste bi areatan bezala, hemen ere etxebizitza berri gutxiago eraikitzea proposatzen da –eskaintza 28 etxebizitzatik 22 etxebizitzara pasa da–. Berriro ere, benetako bizileku premiak gaindimentsionatzeko joera ekiditea bilatu da.

* Hondakin uren isurpenen kudeaketa arautzeko eskakizun berriak sartu dira area guztietan; eta, Araxes ibaiaren ertzetan, gainera, uholde arriskuak minimizatzeko neurriak ipini beharko dira.

* Lurzoru urbanizaezinaren antolamenduari gagozkiola, Nekazaritza eta abeltzaintzako eremua eta landazabala kategoriaren barruan azpikategoria espezifiko bat sartu da –Balio estrategiko handiko nekazaritza ustiategia– Maala baserriko nekazaritza ustiategi estrategikoa sailak eta honen inguruko sailak babesteko. Eta azpikategoria berri horretan, nekazaritza erabileren jarduera bateragarriak zorrotzago zehaztu dira, eremu hau lehen ukitzen zuen azpikategoriarekin alderatuta –Trantsizioko landa eremua–. Era berean, EAEko korridore ekologikoen sarea gainjarritako baldintzatzailea erantsi zaio. Honetan mugatu den korridore ekologikoan sustatu egingo dira ingurumena hobetzeko erabilerak eta basotxo nahi heskaien sorrera, eta aldiz, laboreak babesteko itxiturak mugatu egingo dira.

*3. Ingurumeneko iraunkortasun txostena eta egin den ohiko ingurumen ebaluazio estrategikoa baloratzea.*

Hasierako onespenerako agiriaren dokumentazio osagarrian ingurumeneko iraunkortasun txostena sartu da, 2016ko ekinean egindakoa. Txosten hori aztertu egin da, Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza Nagusi honek egindako erreferentziako agirian ezarritakoa eta 211/2012 Dekretuan xedatutakoa jasotzen duen ala ez egiaztatzeko.

Oro har txertatu dira erreferentziako agirian adierazitako jarraibideak; hala ere, badira iraunkortasun txostenean behar besteko xehetasunez garatu ez diren alderdi batzuk, jarraian azalduko dugun bezala.

Natura 2000 Sarea izan ditzakeen ondorioak aztertzeaz gain –ingurumen adierazpen estrategikoari buruzko apartatuan landuko dugu gai hori–, garapen proposamenek Leaburun eta Txaraman eragin ditzaketen ondorioak baloratu dira, baina balorazio hori ez dator bat, bete-betean, erreferentziako agirian ezarritakoarekin. Hori horrela,

— Gizakien osasunaren gaineko ondorioak, besteak beste zarata jasatearen ondorioz. IITak ez du erakusten garraio azpiegiturek eta industri erabilerek bizitegi garapenetan eragin ditzaketen ondorio akustikoen baloraziorik; eremu akustiko ezberdinak ezartzen dira, besterik gabe.

— Proposatutako antolamenduak eragingo dituen zuzeneko ondorioak jaso dira; ez ordea, zehar ondorioak (adibidez, honda-

grado el 9340 (Bosques de Quercus Ilex y Quercus rotundifolia). Asimismo, se propone un número de nuevas viviendas menor -la oferta pasa de 35 viviendas a 26–, que, aunque no constituye una diferencia importante, sí va en la línea de evitar un sobredimensionamiento de los desarrollos residenciales respecto a las necesidades realmente existentes, que era uno de los criterios ambientales estratégicos que debían ser considerados en la elaboración del PGOU.

* En el desarrollo residencial de Txarama Auzoa, también se produce una disminución de la superficie calificada como de suelo urbano que pasa de 23.225 m$^2$ a 22.900 m$^2$, aunque, bien es verdad, que en el documento de aprobación inicial incluso era menor –22.655 m$^2$–. Esta disminución de la superficie urbana, reduce, asimismo, ligeramente la superficie del ZEC del río Araxes que está en suelo urbano –de 2.910 m$^2$ a 2.859 m$^2$–, aunque nuevamente es un poco mayor que en el documento de aprobación inicial –2.615 m$^2$–. Asimismo, se afecta menos superficie del hábitat de interés prioritario 91E0* –107 m$^2$ frente a los 406 m$^2$ en el avance o los 154 m$^2$ del documento de aprobación inicial–. Se propone también, como en las otras dos áreas, un menor número de viviendas nuevas –la oferta pasa de 28 a 22 viviendas–, lo que nuevamente va en la línea de evitar un sobredimensionamiento de los desarrollos residenciales respecto a las necesidades existentes.

* En todas las áreas se han incorporado exigencias para regularizar la gestión de los vertidos de aguas residuales y, en las que se encuentran, a las orillas del Araxes, además, para minimizar los riesgos de inundabilidad.

* En cuanto a la ordenación del suelo no urbanizable, para la protección del suelo asociado la explotación agraria estratégica del caserío Maala y sus pertenecidos se ha incorporado, dentro de la categoría Agroganadera y Campiña, una subcategoría específica –Explotación Agraria de Alto Valor Estratégico, con una definición de usos más restrictiva en lo que se refiere a los usos compatibles a los usos agrarios que la que le afectaba anteriormente –Paisaje Rural de Transición–. Asimismo, se ha incorporado el condicionante superpuesto Red de Corredores ecológicos de la CAPV por la que se delimita un corredor ecológico en el que se potencian los usos de mejora ambiental, la creación de bosquetes y setos y se limitan los cerramientos de protección de cultivos.

*3. Valoración del informe de sostenibilidad ambiental y de la evaluación ambiental estratégica ordinaria realizada.*

Se incorpora en la documentación complementaria de la aprobación inicial un informe de sostenibilidad ambiental de junio de 2016, que es el que se ha procedido a analizar para comprobar si su contenido incorpora lo indicado en el documento de referencia que fue emitido por esta Dirección de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas, y lo establecido en el Decreto 211/2012.

En líneas generales, se ha producido una integración de las directrices del documento de referencia, aunque, sin embargo, existen una serie de aspectos que se considera, tal y como se expone a continuación, que no se han desarrollado con el suficiente detalle en el informe de sostenibilidad.

Aparte de la valoración de efectos sobre la Red Natura 2000, de la que se tratará en el siguiente apartado de esta declaración ambiental estratégica, se ha incluido una valoración de impactos de las propuestas de desarrollo en Leaburu y Txarama, pero ésta no se ajusta en su totalidad a lo establecido en el documento de referencia. Así,

— Impactos sobre la salud humana, debido a entre otras causas, la exposición al ruido. El ISA no presenta una valoración de los impactos acústicos que pueden producir las infraestructuras de transporte y los usos industriales en los desarrollos residenciales, simplemente se establecen los tipos de áreas acústicas.

— Se han incluido impactos directos pero no los indirectos causados por la ordenación propuesta (por ejemplo, incremento


EK\CV GAO-I-2017-00870

kin uren gehikuntza, etxebizitzen kopurua gehitzearen eraginez); ez eta erabilerak eta jarduerak arautzeak eragingo dituenak ere.

— Ondorioak ez dira sailkatu, ezta kalifikatu ere; era berean ez dira aztertu plan honetako jarduerek eragin ditzaketen ondorio metagarri eta sinergikoak, edota beste plan batzuetan proposatu diren baina esparru honetan eragin dezaketen beste jarduera batzuekiko ondorioak.

Plana ingurumenean integratzeko neurriak nahiko orokorrak dira eta, zenbaitetan, hobetzeko modukoak. Izan ere,

— Euskal Autonomia Erkidegoko kutsadura akustikoari buruzko 213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, eta estatuko 37/2003 Legea, zaratari buruzkoa, Txarama auzoko bizitegi garapenetan ez ezik, Leaburuko Herri Guneko eta Leaburuko Txaleten Zonako bizitegietan ere bete beharrekoak dira. Horregatik, aipatutako dekretuaren 37. artikuluan ezarritako azterketa akustikoan bizitegi horiek guztiak sartu beharko lirateke, eta kalitate akustikoaren helburuak lortzeko beharrezkoak diren neurriak finkatu.

— Kontuan hartuta bizitegirako eta industriarako proposatu diren garapen esparruak zuzenean egikaritzekoak direla, oso urriak dira obren fasean martxan jartzeko proposatutako neurri prebentibo eta zuzentzaileak; beraz, sendotu egin beharko lirateke.

— Egoera ekologikoa leheneratzearren, eta inolako garapen motarik ez duten zenbait esparruko kalitatea hobetzearren, aldez aurretik hartu beharreko neurri batzuk proposatu dira. Hori horrela eginda, oso zaila izango da aipatutako neurriak HAPO garatzen den bitartean ezartzea.

Bukatzeko, erreferentziako agirian eskatutakoa aintzat hartuta, IITan jasotako ikuskapen programaren proposamenean azaldu egin beharko litzateke udalerriko ingurumen kalitatearen jarraipen programan zehaztu egin behar direla programa hori garatzeaz arduratuko diren pertsonak edota entitateak; bai eta zer nolako txosten eta zein maiztasunez egingo diren ere. Gainera, proposatutako ikuskapen programa osoa garatzeko aurrekontua erantsi beharko litzateke, gutxi gorabeherakoa bada ere.

*4. Natura sarean ukitutako esparruetan planak izango dituen eraginen ebaluazio egokiaren ondorioak baloratzea.*

HAPOn proposatu diren hirigintza esparruetako bi –A.3 Txarama Auzoa eta A.4 Lau-Haizeta Industrialdea– Araxes ibaiaren bazterrean garatuko dira, eta ibai hori Natura 2000 Sarean sartua dago ES2120012 Araxes ibaia izendapenarekin. Hala ere, A.4 Lau-Haizeta Industrialdea eremuan ez da garapen berririk aurreikusi, urbanizazio-jarduketa txiki batzuk baino ez. HAPOn aurreikusi da, halaber, Txarama auzoan, Maala errekak Araxes ibaiarekin bat egiten duen lekuaren parean, Telleri sektorearen sailkapena aldatzea. Hala, lurzoru urbanizagarri sektorizatu industrial izatetik lurzoru urbanizaezin izatera pasa da.

Arestian aipatutako jarduketa horiek Araxes ibaiko KBEn eragin dezaketela pentsatuta, HAPOk Natura 2000 Sarean izan lezakeen ondorioari buruzko balorazioa jaso da ITTan.

Hori horrela, ITT egiterakoan Europako Batzordeak 2001ean argitaratutako «92/43/EE habitatei buruzko zuzentarauaren 6. artikuluko 3. eta 4. apartatuetan ezarritako xedapenei buruzko gidaliburu metodologikoa» jarraitu da; zehazki, ebaluazioaren lehen fasea, «bahetzea» izenekoa. Hauek dira azterketak utzi dituen ondorio nagusiak:

— HAPOk ez du zuzeneko loturarik KBEren kudeaketarekin; gainera, ezin da esan horretarako beharrezkoa denik ere.

— A.3 Txarama Auzoa eremuari gagozkiola, HAPOn jasotako proposamenak, hala nola plan honetako araudia eta ezarritako babes neurriak kontuan hartuta, esan daiteke KBEko funtsezko elementu bat berak ere ez lukeela zuzeneko eragin kaltegarririk

de las aguas residuales debido a un aumento en el número de viviendas) o aquellos derivados de la regulación de usos y actividades.

— No se han clasificado ni calificado los impactos, ni se ha analizado la posible existencia de efectos acumulativos y sinérgicos de las distintas actuaciones del plan y de éstas con otras actuaciones propuestas por otros planes que pudieran confluir en el ámbito.

En cuanto a las medidas de integración ambiental propuestas, son bastante generales y en algunos casos mejorables. Así,

— El cumplimiento del Decreto 213/2012, de 16 de octubre, de contaminación acústica de la Comunidad Autónoma del País Vasco y la Ley 37/2003 de ruido estatal, no solo serán aplicable a los desarrollos residenciales en el barrio de Txarama sino también a los situados en Leaburuko Herri Gunea y Leaburuko Txaleten Zona, por lo que para todos ellos debería realizarse el estudio acústico establecido en el artículo 37 de dicho Decreto y definir las medidas necesarias para alcanzar los objetivos de calidad acústica.

— Dado que los ámbitos de desarrollo residencial e industrial propuestos son de ejecución directa, se considera que las medidas preventivas y correctoras a poner en marcha durante la fase de obras propuestas son muy escasas y deberían ser reforzadas.

— Se proponen de forma preliminar una serie de medidas para la restauración ecológica y la mejora de la calidad de ciertos ámbitos sin ningún tipo de desarrollo, lo que hace difícil su posterior implementación durante el desarrollo del PGOU.

Finalmente, en la propuesta del programa de supervisión incluida en el ISA, se echa en falta, respecto a lo solicitado en el documento de referencia, que, en el programa de seguimiento de la calidad ambiental del municipio, se definan las personas y/o entidades encargadas de su desarrollo así como los informes que se van a emitir y su periodicidad. Asimismo, se deberá incluir un presupuesto, aunque sea aproximado, para el desarrollo de la totalidad del programa de supervisión propuesto.

*4. Valoración de las conclusiones de la adecuada evaluación de las repercusiones del plan en los lugares de red natura afectados.*

Dos de los ámbitos urbanísticos propuestos en el PGOU –A.3 Txarama Auzoa y A.4 Lau-Haizeta Industrialdea– se desarrollan a las orillas del río Araxes, cauce que está incluido dentro de la Red Natura 2000 con la denominación ES2120012 Río Araxes, aunque en el caso del A.4 Lau-Haizeta Industrialdea, no se prevén nuevos desarrollos sino solo pequeñas actuaciones de urbanización. Asimismo, el PGOU contempla en el barrio de Txarama, a la altura de confluencia de la regata Maala con el río Araxes, la desclasificación del sector Telleri, que pasa de ser un suelo urbanizable sectorizado industrial a suelo no urbanizable.

Teniendo en cuenta que las anteriores actuaciones pudieran tener impactos sobre el ZEC del río Araxes, el ISA incluye una valoración de la posible afección del PGOU sobre la Red Natura 2000.

Con dicho fin, el ISA sigue las recomendaciones de la «Guía metodológica sobre las disposiciones de los apartados 3 y 4 del artículo 6 de la directiva sobre hábitats 92/43/CEE» publicada por la Comisión Europea en 2001, en concreto, lleva a cabo la primera fase de la evaluación, la denominada «cribado». Los contenidos más relevantes de su análisis son las siguientes:

— El PGOU no tiene ninguna relación directa con la gestión de la ZEC ni se puede decir que sea necesaria para la misma.

— En cuanto al A.3 Txarama Auzoa, atendiendo a las propuestas contenidas en el PGOU, a su normativa y a las medidas de protección establecidas, considera que ninguno de los elementos clave de la ZEC resultaría directamente afectado y, en

jasango; izatekotan ere, elementu horietan eragin positiboak ondoriozta daitezke, zeren eta Sarritz lurzatiko lurzoru kutsatuak garbitu egingo lirateke, urak har dezakeen ibarreko eraikinak libre utziko lirateke, eta trantsizioko espazio libreei erantsi eta, gainera, batasunaren intereseko habitaten azalera zabaltzeko aukera egongo litzateke. Zehar ondorioei dagokienez, berriz, bolada batean eragin kaltegarriak sor daitezke, aipatutako lurzatiko lurzoru kutsatua garbitzeko jarduketen dirauten bitartean hain zuzen; izan ere, lurzati hori ibai ibilgutik hurbil baitago eta, horregatik, halako babes neurri batzuk bete beharko dira urmasarekin zerikusia duten obrak gauzatzen diren bitartean, eta lurzatiko gainerako obrak egiten diren bitartean.

— Txostenean adierazten denez, ondorio positiboak gerta daitezke Araxes ibaia korridorearen funtzionalitatean eta korridore horrek aldameneko habitatekin (basoa eta landazabala) duen loturan; izan ere, Telleri sektoreko lurzoruari sailkapen berria emango baitzaio. Hala eta guztiz ere, gaur egun oztopo bat dago lotura hori lortzeko, GI-2135 errepideak eten egiten baitu.

IITan ondorioztatu da, arestian aipatutako guztia kontuan hartuta, Natura 2000 Sareko Araxes ibaia eremuan ez dela eragingo ondorio kaltegarri nabarmenik; ez behintzat ezarritako proposamenak eta helburuak mantentzen badira eta EAEko ibaien eta erreken LAPean eta Kantauri Ekialdeko demarkazio hidrografikoaren plan hidrologikoan ezarritako araudia eta eskakizunak betetzen badira, eta ur inguruneari lotutako KBE eta BBEetarako arau orokorrak aplikatzen badira.

HAPOk Araxes ibaia KBEan eragin ditzakeen efektuei buruz IITeko azterketan ondorioztatu denez, alderdi batzuk ez dira landu edo ez dira behar besteko xehetasunez landu, Araxes ibaia KBEaren gaineko ondorioak modu egokian ebaluatu direla esateko, inolako ezbairik gabe:

— Aztertu egin beharko ziratekeen ustiapen-aldian gerta daitezkeen zehar ondorioak; hau da, proposatutako bizitegi garapen berriak direla-eta batez ere, hondakin uren isurketan gertatuko den gehikuntzak eragin ditzakeen zehar ondorioak. Hala ere, esan behar da, HAPOn aurreikusi diren jarraibide eta proposamen batzuek arindu egingo dutela Araxes ibaiko uren kalitatean eragin litekeen inpaktua. Hain zuzen ere, Sarritz eremutik hasita ur beltzen kolektore berria eraikitzea aurreikusi da, eta kolektore hori Tolosako sareari lotzea, Atari Ederren ondoan. Hirigintza fitxetan, halaber, honako baldintzak ezarri dira: garapen berriak gauzatuko badira, HAPO honetan aurreikusitako estolderia eta isurpen instalazioek martxan egon beharko dute aldez aurretik; eta Lau-Haizeta Industrialdeko instalazioen kasuan, jardueran sortutako urek tratamendu espezifiko bat jaso beharko dute saneamendu sarera isuri aurretik. Bukatzeko, Udalak esparru berriak urbanizatzeko baimena emango badu, aldez aurretik bidezko eskaera eta isurpen adierazpena aurkeztu beharko dira, nahitaez, arroako erakundean.

— Ebaluazioa egiterakoan ez dira kontuan hartu, halaber, A.3.2 Plaza Berri esparrurako proposatu diren aisialdi eta ekipamendu publikoko jarduerek ustiapen aldian eragin ditzaketen ondorioak, eta jarduera horiek Araxes ibaiaren bazterretan ekarriko duen bisitari gehikuntza. Erabilera horiek, hasiera batean, aurreko udal plangintzan planteatutako garapen industriala bezain kaltegarriak ez badirudite ere, ez dira gutxietsi behar. Hain zuzen ere, gorago aipatu dugun 34/2015 Dekretuak «erabilera publikoari eta ibilgailuen zirkulazioari» buruzko jarraibideetan ezartzen duenez, «jendearen etorrera eta aisialdiko azpiegiturak (kanpatzeko lekuak, aparkamendua, aisia-eremuak, pasealekuak era bizikleta-bideak ...) espazioaren mugez kanpoko eremuetara bideratuko dira, udalekiko koordinazioaz». Beraz, badirudi KBEaren barruan horrelako jarduerarik ez izatea lehenesten duela. Horrela bada, horrelako jarduerek Araxes ibaia KBEan eragingo dituzten ondorioaz baloratu egin behar dira, eta ondorio horiek minimizatzeko eta prebenitzeko neurri babesgarri eta zuzentzaileak ezarri –esate baterako, aisialdiko erabilera eta ekipamendu jarduera batzuk mugatzea, erabilera

todo caso podrían derivarse efectos positivos sobre los mismos, derivados de la descontaminación de los suelos de la parcela Sarritz, la liberación de edificaciones de la vega inundable y su incorporación a los espacios libres de transición, así como la posibilidad de ampliar la superficie de hábitats de interés comunitario 91E*0. En cuanto a los efectos indirectos, señala que podrían producirse efectos negativos de carácter temporal durante la ejecución de las labores de descontaminación de la parcela señalada, dada su ubicación en las cercanías del cauce, por lo que se deberán cumplir una serie de medidas protectoras durante la fase de obra en relación con la masa de agua y los periodos de ejecución de las obras.

— Expone que podrían producirse efectos de carácter positivo sobre la funcionalidad del corredor del río Araxes y su conectividad con los hábitats adyacentes (bosque y campiña) derivados de la reclasificación del suelo en el sector Telleri. No obstante, añade que esta conectividad actualmente se ve dificultada por la fractura que supone la carretera GI-2135.

Teniendo en cuenta todo lo anterior, el ISA concluye que es poco probable que se produzcan efectos significativos en el espacio Red Natura 2000 Araxes Ibaia/Río Araxes, al menos, en el caso de que se mantengan las propuestas y objetivos establecidos y se cumpla con la normativa y requisitos derivados del PTS de ríos y arroyos de la CAPV, Plan Hidrológico de la Demarcación del Cantábrico Oriental y las Normas Generales para las ZECs y ZEPAs vinculadas al medio hídrico.

Respecto al análisis del ISA sobre los efectos del PGOU en el ZEC del Rio Araxes y sus consiguientes conclusiones, se considera que hay algunos aspectos que no se han abordado o que no se han tratado con el suficiente nivel de detalle para poder afirmar sin lugar a dudas que se ha hecho una adecuada evaluación de los efectos sobre la ZEC del Río Araxes:

— Deberían haberse analizado los impactos indirectos durante la fase de explotación que pudieran proceder del aumento de los vertidos de aguas residuales como consecuencia principalmente de los nuevos desarrollos residenciales propuestos, si bien es verdad que, entre las previsiones del PGOU, se encuentran algunas directrices y propuestas que mitigarán su impacto sobre la calidad de las aguas del río Araxes. Así, se prevé la construcción de un nuevo colector de fecales desde Sarritz, conectado con la red de Tolosa junto a Atari Eder, y, en las fichas urbanísticas, se condiciona la ejecución de los nuevos desarrollos a la previa operatividad de las instalaciones de saneamiento y vertido previstos en el presente PGOU y, en el caso de las instalaciones de industriales de Lau-Haizeta Industrialdea a la existencia de un tratamiento específico previo a su vertido a la red de saneamiento. Finalmente, también se establece la obligación de presentar previamente la solicitud y declaración de vertido ante el Organismo de cuenca de forma previa a que el Ayuntamiento conceda la licencia para la urbanización de los nuevos ámbitos.

— Tampoco se ha tenido en cuenta en la evaluación, los posibles impactos de las actividades recreativas y de equipamiento público que se proponen para el ámbito A.3.2 Plaza Berri durante la fase de explotación y el consiguiente aumento de frecuentación de las orillas del río Araxes que ello supondrá. Aunque estos usos parecen menos impactantes que el desarrollo industrial planteado en el anterior planeamiento municipal, no por ello deben ser menospreciados. De hecho, en las directrices relativas al «uso público y circulación rodada» del Decreto 34/2015 anteriormente citado, se establece que «se coordinará con los ayuntamientos la canalización de la afluencia de público y las infraestructuras recreativas (áreas de acampada, aparcamientos, áreas recreativas, paseos y vías ciclistas, ...) hacia zonas situadas fuera de los límites del espacio, por lo que parece primar la no existencia de este tipo de actividades dentro de la ZEC. En consecuencia, se deberán valorar los impactos que producirán este tipo de actividades en la ZEC del río Araxes y establecer las medidas protectoras y correctoras para minimizar y prevenir sus efectos –por ejemplo, limitación de ciertos

EK\CV GAO-I-2017-00870

jakin batzuetan KBEaren ibilguarekiko distantziak handitzea, jendetza kontrolatzea, argiteria mailak murriztea, eta abar–.

— Obren fasean gerta daitezkeen zehar ondorioei gagozkiela, IITan halako babesneurri batzuk martxan jarri beharra ezartzen badu ere, VI. Ingurumenean Integratzeko Neurriak apartatuan gai honi buruz jasotako neurriak ikusita antzeman daitekeenez, neurri horiek oso eskasak dira, eta KBEaren gaineko ondorioak minimizatu egingo direla bermatzeko, sendotu egin beharko lirateke.

— Txarama Auzoa eta Lau-Haizeta esparruetan Araxes ibaiaren eskuinaldea ekologikoki eta paisajistikoki zaharberritzeko proposamenari dagokionez, IITak ez du ezer zehaztu; beraz, oso zaila da HAPO honek Araxes ibaia KBEan agidanez izango dituen ondorio positibo horiek benetan lortuko direla ziurtatzea.

*5. Ingurumen alderdiak planeko proposamenean nola txertatu diren baloratzea.*

Iraunkortasun txostena Leaburu-Txaramako HAPOren zati bat da, E dokumentua, hain zuzen. Gainera, Hirigintza Arau Orokorren 3.2 artikuluaren arabera, dokumentu honek arau izaera du eta hirigintza jarduera erregulatzen du; beraz, hirigintza jarduera orok dokumentu honetako xedapenak bete beharko ditu. Hori inportantea da, zeren eta esan nahi baitu neurri babesgarri eta zuzentzaileak, eta iraunkortasun txosteneko ikuskapen programa aplikatu egin behar direla HAPOko proposamenak garatzen diren bitartean.

Bizitegi eskaintzari dagokionez, 48 unitate eraikitzea aurreikusi da azkenean. Kopuru hori aurrerakinean planteatutakoa baino txikiagoa bada ere –73 unitate–, Tolosaldeko LPParen hasierako onespenean aurreikusitako kopurua baino dezente handiagoa da –Plan horretan aurreikusi zen 15 eta 21 etxebizitza bitarte eraikitzea 2011-2018 epealdian–. Beraz, hobe zen bizitegi kuantifikazioari gehiago eutsi izan balitzaio. Nolanahi ere, dagoen etxebizitza eskaria baino askoz ere eskaintza handiagoa egon ez dadin, eta ondorioz, benetako premiek bultzatakoak ez diren ingurumen inpakturik sor ez dadin, bidezkoa izango zatekeen aurreikusitako garapen ezberdinak gauzatzeko lehentasun-hurrenkera bat ezarri izan balitz, eta garapen bat gauzatzen hasteko, plangintzan aurreikusitako aurreko garapena martxan egotea exijitu izan balitz.

Bestetik, aintzat hartzeko beste alderdi bat dago: Leaburuko Herri Gunea eta Leaburuko Txaleten Zona eremuetan dentsitate txikiko proposamenen bat edo beste planteatu bada ere, aurreko Arau Subsidiarioetan lehentasunezkotzat jo zen ereduari jarraituz, kontua da eraikuntza irekietako garapenak sustatzeko joera azaldu dela (48 etxebizitza berrietatik 30tan), eta horrek lurzoru baliabidea modu iraunkorragoan erabiltzea ahalbidetzen du. Gainera, garapen horiek jada urbanizatuak dauden guneetan edo inguruan gauzatuko dira, eta hori onuragarria da ingurumenaren ikuspegitik begiratuta.

Industri erabilerara bideratutako lurzoru gehikuntzarik ere ez dago; gainera Telleri eremuari kendu egin zaio zuen kalifikazioa, eta Sarritz aldea industri erabilerak bezain kaltegarriak ez diren jardueretara bideratzea erabaki da, uholde arriskuak kontuan hartuta betiere. Bestetik, bai azkeneko eremu honetan eta bai Lau-Haizeta Industrialdean, Araxes ibaia KBEaren aldamenean daudenez, ibai ekosistema babestera eta zaharberritzera bideratutako xedapenak ezarri da, nahiz eta ez den zehaztu xedapen horiek nola zertuko diren.

Lurzoru urbanizaezineko ingurumen balioak babestearren, lurzoruak kategorizatzea proposatzen da, baina IITen proposatu diren eta ingurumenaren aldetik homogeneoak diren unitateak oinarritzat hartuz. Gainera, gainjarritako baldintzatzaileak gehitu egin dira. Aurkeztutako proposamena zuzentzat jo dezakegu, Araxes ibaitik hurbil dauden nekazaritzako lur eremu batzuen kasuan izan ezik. Izan ere, HAPOk lur horiek Trantsizioko Landa Paisaia azpikategorian sartu dituen arren, Euskal

usos recreativos y de equipamiento, aumento de los retiros al cauce del ZEC de ciertos usos, control de la afluencia, restricción de niveles de iluminación, etc.–.

— En cuanto a los efectos indirectos durante la fase de obras, a pesar de que el ISA establece la necesidad de poner en marcha medidas protectoras, un repaso a las medidas al respecto incorporadas en el apartado VI. Medidas de Integración Ambiental releva que son muy escasas y que deberían ser reforzadas para asegurar que se minimizan los impactos sobre el ZEC.

— Respecto a la restauración ecológica y paisajística de la margen derecha del río Araxes que se propone para los ámbitos Txarama Auzoa y Lau-Haizeta, el ISA no aporta ninguna definición de la misma, por lo que es difícil asegurar si realmente se van a alcanzar los impactos positivos que se dice que tendrán estas actuaciones previstas por el PGOU en el ZEC del río Araxes.

*5. Valoración de la integración de los aspectos ambientales en la propuesta del plan.*

El informe de sostenibilidad forma parte integrante del PGOU de Leaburu-Txarama con la denominación del documento E. Además, según el artículo 3.2 de las Normas Urbanísticas Generales, este documento tiene un carácter normativo y de regulación de la actividad urbanística, por lo que ésta deberá ajustarse a sus determinaciones. Este último aspecto es importante porque hace que las medidas protectoras y correctoras así como el plan de supervisión del informe de sostenibilidad deban de ser aplicadas durante el desarrollo de las propuestas del PGOU.

En cuanto a la oferta residencial, finalmente ha resultado ser de 48 unidades, que aunque es inferior a lo planteado en el avance –73 unidades–, sigue siendo bastante superior a las previsiones realizadas por la aprobación inicial de PTP de Tolosaldea –que establece para el periodo 2011-2018 una cuantificación residencial entre las 15 y 21 viviendas–, lo que hubiera hecho deseable una mayor contención en la cuantificación residencial. En cualquier caso, para evitar que se llegue a producir una oferta excesiva sobre la demanda existente y, por tanto, se produzcan impactos ambientales que no respondan a necesidades realmente existentes, hubiera sido conveniente que se estableciera un orden de prioridades para la ejecución de los diferentes desarrollos previstos y que se condicionara la ejecución de un desarrollo a la previa puesta en marcha del anterior previsto en la planificación.

Por otra parte, es de valorar que, a pesar de plantearse alguna propuesta de baja densidad en Leaburuko Herri Gunea y Leaburuko Txaleten Zona siguiendo el modelo que fue prioritario en las anteriores NNSS, se ha tendido a potenciar los desarrollos en edificaciones abiertas (30 de las 48 nuevas viviendas), lo que permite un uso más sostenible del recurso suelo. Además, los desarrollos se hacen en zonas ya urbanizadas o en sus proximidades, lo que también es más favorable desde el punto de vista ambiental.

Tampoco hay un aumento de la ocupación del suelo por usos industriales, e incluso se descalifica la zona de Telleri y se opta por dedicar la zona de Sarritz a usos menos impactantes que los industriales y respetando los riesgos de inundabilidad. Además, tanto en esta última área como en la de Lau-Haizeta Industrialdea, debido a ser colindantes al ZEC del Río Araxes, se establecen determinaciones encaminadas a la protección y restauración del ecosistema fluvial, aunque no se llega a concretar detalladamente cómo se van a llevar a cabo.

En cuanto al suelo no urbanizable y al fin de proteger sus valores ambientes, propone una categorización de los suelos basada en las unidades ambientalmente homogéneas propuesto por el ISA. Además, añade una serie de condicionantes superpuestos. La propuesta presentada se puede considerar correcta si exceptuamos algunas de las áreas de suelos agrarios en las cercanías del Río Araxes que, aunque el PGOU las enclava dentro del la subcategoría de Paisaje Rural de Transi-

EK\CV GAO-I-2017-00870

Autonomia Erkidegoko nekazaritza eta basogintzari buruzko LAParen 10. artikuluan xedatutakoa bete ahal izateko Balio Estrategiko Handia azpikategorian sartu beharko lirateke, halakotzat jo baitira aipatutako LAPean.

Aurkeztutako dokumentazio teknikoa aztertu ondoren, urriaren 16ko 211/2012 Dekretuko 4. eta 6. artikuluetan hala nola otsailaren 27ko 3/1998 Legeko 44.2 artikuluan xedatutakoa aplikagarria denez, eta kontuan harturik uztailaren 19ko 22/2016 Foru Dekretuan ezarritakoa, plangintza onesteko eskuduntza nagusia Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokion kasuetan, Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentua da ingurumen txostena egiteko organo eskuduna.

Azaldutako guztia kontuan hartuta, eta plan eta programen ingurumen ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen 211/2012 Legeak, urriaren 16koak, 13. artikuluan aurreikusitakoa, hala nola ingurumen ebaluazioa egiteko 21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, 25. artikuluan xedatutakoa betetez:

XEDATZEN DUT

*Lehenengoa.* Leaburu-Txaramako HAPOri dagokion ingurumen adierazpen estrategiko hau ematea.

*Bigarrena.* Ingurumen adierazpen estrategiko honetako xedapenak HAPO osatzen duten dokumentuetan (Memoria, Planoak...) txertatuko dira, dagozkien apartatuetan. Era berean, planen eta programen ingurumen ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen 211/2012 Dekretuak 13. artikuluaren 4. apartatuan xedatutakoa betetzeko, txertaketa hori nola egin den erakusten duen dokumentu bat idatzi eta onartu beharko da, eta Ingurumeneko Zuzendaritza honetara bidali.

*Hirugarrena.* Bai Leaburu-Txaramako HAPO bera eta bai plan horren ingurumeneko iraunkortasun txostena egokitu egin beharko dira, segidan adieraziko ditugun jarraibideen arabera:

1. Ingurumeneko iraunkortasun txosteneko alderdi hauek osatu egin beharko dira:

— HAPOko xedapenek eta jarduketek ingurumenaren gainean izango dituzten ondorio aipagarriak identifikatzea eta baloratzea:

* Kontuan hartuta HAPOn proposatu diren bizitegi garapenak zuzenean egikaritzekoak direla –Txarama Auzoa, Leaburuko Herri Gunea eta Leaburuko Txaleten Zona–, eremu horietako bakoitzeko eragin akustikoaren azterketa egin beharko da; eta azterketa horrek Euskal Autonomia Erkidegoko kutsadura akustikoari buruzko 213/2012 Dekretuak, urriaren 16koak, 37. artikuluan ezarritako edukia izango du.

* Proposatutako antolamenduak eragingo dituen zehar ondorioak identifikatu eta baloratu egingo dira, erabilerak eta jarduerak arautzeak eragingo dituenak bezalaxe.

* Eraginak sailkatu eta kalifikatu egingo dira, eta ondorio metatzaile eta sinergikoak aztertu.

— Natura 2000 Sarean gaineko eraginaren ebaluazioa osatu egingo da. Horretarako aintzat hartuko dira txosten honen 4. atalean –Natura Sarean ukitutako esparruetan planak izango dituen eraginen ebaluazio egokiaren ondorioak baloratzea– azaldutako jarraibideak, eta xedapen hauetako 2. puntuko c) apartatuan –HAPOn proposatutako hirigintza garapenetarako xedapenak– ezarritakoa.

— Neurri babesgarri eta zuzentzaileak.

* Kontuan hartuta bizitegirako eta industriarako proposatu diren garapen esparruak zuzenean egikaritzekoak direla, IITak zehaztasun osoz adierazi beharko ditu jarduerak garatzen diren bitartean ezarriko diren neurri babesgarri eta zuzentzaileak. Bestela, txosten horretan ezarriko da, urbanizazio proiektuekin eta xehetasunezko azterketekin batera ingurumen azterketak aur-

ción, deberían incluirse para el cumplimiento del artículo 10 del PTS Agroforestal de la Comunidad Autónoma del País Vasco en la subcategoría de Alto Valor Estratégico por estar así consideradas en dicho PTS.

Examinada la documentación técnica presentada y resultando de aplicación lo dispuesto en los artículos 4 y 6 del Decreto 211/2012, de 16 de octubre, y el artículo 44.2 de la Ley 3/1998, de 27 de febrero, y teniendo en cuenta el Decreto Foral 22/2016, de 19 de julio, en aquellos casos en los que la competencia sustantiva para la aprobación de un plan resida en la Diputación Foral de Gipuzkoa, el órgano competente para la emisión de la memoria ambiental lo constituye el Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas.

Por todo lo anteriormente expuesto, y en cumplimiento de lo previsto en el artículo 13 del Decreto 211/2012, de 16 de octubre, por el que se regula el procedimiento de evaluación ambiental estratégica de planes y programas y, en el artículo 25 de la Ley 21/2013, de 9 de diciembre, de evaluación ambiental:

DISPONGO

*Primero.* Emitir la presente declaración ambiental estratégica respecto al PGOU de Leaburu-Txarama.

*Segundo.* Las determinaciones de esta declaración ambiental estratégica se integrarán, en los apartados pertinentes de los documentos que componen el PGOU (Memoria, Planos, etc.). Asimismo, en cumplimiento del apartado 4 del artículo 13 del Decreto 211/2012 por el que se regula el procedimiento de evaluación ambiental estratégica de planes y programas, se deberá elaborar y aprobar un documento, que se remitirá a esta Dirección de Medio Ambiente, en el que se refleje cómo se ha realizado dicha integración.

*Tercero.* El PGOU de Leaburu-Txarama, así como su correspondiente informe de sostenibilidad ambiental, tendrán que ser readaptados conforme a las determinaciones que se señalan a continuación:

1. El Informe de Sostenibilidad Ambiental deberá completarse en los siguientes aspectos:

— Identificación y valoración de los efectos significativos en el medio ambiente de las diferentes determinaciones y actuaciones del PGOU:

* Dado que todas las propuestas de desarrollo residencial PGOU son de ejecución directa –Txarama Auzoa, Leaburuko Herri Gunea y Leaburuko Txaleten Zona–, deberá elaborarse un estudio de impacto acústico para cada una de ellas con el contenido establecido en el artículo 37 del Decreto 213/2012, de 16 de octubre, de contaminación acústica de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

* Se identificarán y valorarán los impactos ambientales indirectos ocasionados por la ordenación propuesta y por la regulación de usos y actividades.

* Se procederá a la clasificación y calificación de los impactos y al análisis de los efectos acumulativos y sinérgicos.

— Se deberá completar la evaluación sobre la afección a la Red Natura 2000. Para ello se tendrán en cuenta las directrices expuestas en el apartado 4 de este informe –Valoración de las conclusiones de la adecuada evaluación de las repercusiones del Plan en los lugares de Red Natura afectados– y lo establecido en el apartado c del punto 2 –Determinaciones para los desarrollos urbanísticos propuestos en el PGOU– de estas determinaciones.

— Medidas protectoras y correctoras.

* Dado que los ámbitos de desarrollo residencial e industrial propuestos son de ejecución directa, el ISA deberá detallar de forma concreta las medidas protectoras y correctoras a implementar durante el desarrollo de los actuaciones o bien, establecer la necesidad de que los proyectos de urbanización y estudios de detalle se acompañen de estudios ambientales que

keztu behar direla, eta horietan zehaztuko direla obrek dirauten bitartean inpaktuak minimizatzeko ezarriko diren neurri babesgarri eta zuzentzaileak, eta ikuskapen programa.

* IITeko VI.2 apartatuan esparru jakin batzuen egoera ekologikoa leheneratzeko eta kalitatea hobetzeko aipatzen diren neurriei dagokienez, benetan aplikatuko direla berretsi behar du IITak. Hori horrela, IITak behar beste garatu beharko ditu, gero HAPO egikaritzen den bitartean ezarri ahal izan daitezen –aurrekontua ere barne hartuta–. Edo, gutxienez, HAPO egikaritzeko prozesuan neurri horiek garatu beharko dituzten azterketek jarraitu beharreko irizpideak ezarri. Txarama auzoan Araxes ibaiaren eskuinaldea zaharberritzeari dagokionez, ez da ahaztu behar esparru honek garapen berriko eremu baten ezaugarriak dituela. Horregatik, proiektuan kontuan hartu beharko dira 34/2015 Dekretuak, martxoaren 17koak, ingurumena zaintzeko eta hobetzeko erabilerei buruz ezarritako jarraibideak; izan ere, dekretu horrek onartzen baititu ingurune hidrikoari lotuak dauden kontserbazio bereziko eremuetarako (KBE) eta hegaztien babes bereziko eremuetarako (BBE) arau orokorrak.

* Osatu egingo da VII. apartatua. Bideragarritasun ekonomikoari buruzko txostena: Hautabideak eta neurri prebentibo, zuzentzaile eta konpentsagarriak.

— Ikuskapen programa: Iraunkortasun txosteneko atal hori hobeto definitu behar da. Hori horrela, zehaztu egin beharko da:

* Udalerriko ingurumen kalitatearen jarraipen programan, zeintzuk izango diren udalerriko ingurumen kalitatearen jarraipen programaz arduratuko diren pertsonak edota entitateak, eta zer nolako txostenak eta zein maiztasunez egingo diren.

* IITan erabakitzen bada, proposatutako bizitegi eta industri jarduerak garatzen diren bitartean ezarriko diren neurri babesgarri eta zuzentzaileak xehetasun osoz zehatzea, garatu egin beharko du obren faserako aurreikusitako ikuskapen programa ere. Eta garapen horretan, ingurumen jarraipena egiteaz arduratuko diren pertsonak edota erakundeak zehaztea sartuko da.

* Egin beharko diren ikuskapen txosten guztiak, bai hirigintza jarduketetatik etorritako obrek dirauten bitartean, eta bai urbanizazio proiektuak eta xehetasunezko azterketak idazterakoan neurri babesgarri, zuzentzaile eta konpentsagarriak behar bezala txertatu diren egiaztatzekoak ere.

* HAPO honen indarraldian zehar ikuskapen plan horrek izango duen aurrekontua, udal mailan bederen.

2. HAPOn proposatutako hirigintza garapenei buruzko zehaztapenak.

a) Bizitegi garapenak planifikatzea. Komenigarria litzateke aurreikusitako bizitegi garapenak denboran planifikatzea, aurreikusitako garapenak egikaritzeko lehentasunen hurrenkera bat finkatzea, eta garapen bat gauzatzen hasteko, plangintzan aurreikusitako aurreko garapena martxan egotea exijitzea.

b) Bisoi europarraren kudeaketa planaren aplikazioa A.3.2 Plaza Berri esparruan eta Lau-Haizeta Industrialdean. Bi esparru horiek Araxes ibaiaren ondoan daude, eta hau, 2004ko maiatzaren 12ko Foru Aginduaren bidez onartutako bisoi europarraren kudeaketa planaren aplikazio esparruan dago. Horrela bada, plan horretako 10. artikuluan xedatutakoa betetzeko, Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Departamentua bidezko txostena eskatzeko obligazioa ezarri beharko da aipatutako bi esparru horien hirigintza fitxetan.

c) Ingurune hidrikoari lotutako KBE eta BBEetarako arau orokorren aplikazioa (34/2015 Dekretua), A.3.2 Plaza Berri esparruan. «EA-4.3. Hiri zerbitzuko sareak ezartzeko oinarrizko parametroak» planoan ikus daitekeenez, argindarraren eta telefoniaren lurpeko sareen trazadura KBEren mugen barruan diseinatu da; hariteria horrek, gainera, ibai ibilgua zeharkatu egin

definan las medidas protectoras y correctoras y el programa de vigilancia durante la fase de obra para minimizar los impactos.

* En el caso de las medidas para la restauración ecológica y la mejora de la calidad de ciertos ámbitos del apartado VI.2 del ISA, éste deberá confirmar si se van a llevar a cabo. En ese caso, el ISA las deberá desarrollar a un nivel suficiente para su posterior implementación durante la ejecución del PGOU –incluido su presupuesto–, o, al menos, establecer las directrices que tendrán que seguir los estudios que deberán desarrollarlas durante el proceso de ejecución del PGOU. En el caso de la restauración de la margen derecha del río Araxes en el barrio de Txarama, dado que este ámbito tiene características que podríamos considerar de nuevo desarrollo, el proyecto tendrá que tener en cuenta las Directrices relativas al uso de conservación y mejora ambiental del Decreto 34/2015, de 17 de marzo, por el que se aprueban las normas generales para las Zonas Especiales de Conservación (ZEC) y Zonas de Especial Protección para las Aves (ZEPA) vinculadas al medio hídrico.

* Se completará el apartado VII Informe de Viabilidad económica: Alternativas y medidas preventivas, correctoras y compensatorias.

— Programa de Supervisión: se deberá mejorar la definición de este apartado del informe de sostenibilidad. Así, se establecerá:

* En el programa de seguimiento de la calidad ambiental del municipio propuesto, cuáles serán las personas y/o entidades encargadas del programa de seguimiento de la calidad ambiental del municipio así como los tipos de informes que se emitirán y su periodicidad.

* Si el ISA decide detallar de forma concreta las medidas protectoras y correctoras a implementar durante el desarrollo de las actuaciones residencial e industrial propuestas, deberá desarrollar también el correspondiente programa de vigilancia para la fase de obras. Este desarrollo incluirá la definición de las personas y/o entidades encargadas de este seguimiento ambiental.

* Los diferentes informes de supervisión que se deberán emitir tanto durante el desarrollo de las obras derivadas de las actuaciones urbanísticas, como también para comprobar la adecuada incorporación de las medidas protectoras, correctoras y compensatorias durante la redacción de los proyectos de urbanización y estudios de detalle.

* El presupuesto que va a tener este plan de supervisión durante el tiempo de vigencia del presente PGOU, por lo menos a nivel municipal.

2. Determinaciones para los desarrollos urbanísticos propuestos en el PGOU.

a) Planificación de los desarrollos residenciales. Se sugiere que se elabore una planificación temporal de los desarrollos residenciales previstos, se fije un orden de prioridades para la ejecución de los diferentes desarrollos previstos y se condicione la ejecución de un desarrollo a la previa puesta en marcha del anterior previsto en la planificación.

b) Aplicación del Plan de Gestión del Visón Europeo en los ámbitos A.3.2 Plaza Berri y Lau Haizeta-Industrialdea. Ambas áreas se encuentran a las orillas del río Araxes, que está dentro del ámbito de aplicación del Plan de Gestión del Visón Europeo aprobado por la Orden Foral del 12 de mayo de 2004. En consecuencia, en cumplimiento del artículo 10 de dicho plan, se deberá incluir en la ficha urbanística de ambos ámbitos la necesidad de pedir informe al Departamento de Promoción Económica, Medio Rural y Equilibrio Territorial.

c) Aplicación de las Normas Generales para las ZEC y ZEPAS vinculadas al medio hídrico (Decreto 34/2015) en el ámbito A.3.2 Plaza Berri. Según se observa en el plano EA-4.3 Parámetros básicos de implantación de las redes de servicios urbanos, se planifica el trazado de las redes subterráneas eléctrica y telefónica dentro de los límites del ZEC, que además,

beharko du Altzoko udal barrutira igarotzeko. Urbanizazio proiektua gauzatzen denean sare horien behin betiko diseinua erabakitzean, aintzat hartu beharko dira 34/2015 DEkretuak azpiegiturei buruz jasotako jarraibide eta arauak. Hauek, hain zuzen ere, KBEren barruan azpiegiturak ez eraikitzea lehenesten dute, azpiegitura horiek KBEan eragin dezaketen ondorioa ebaluatzeko exijitzen dute; eta, ibilguak gurutzatu beste irtenbiderik ez dagoenean, beste edonolako hautabideri heldu aurretik lehendik badiren pasabide-azpiegiturak (zubiak, esaterako) erabiltzea hobesten dute. Bestetik, kontuan hartuta arau orokorretan «erabilera publikoa eta zirkulazioa» arloa lantzen duen apartatuko 8.D.1 artezpideak bisitariak eta aisialdi erabilerako azpiegiturak (aparkamenduak, aisia-eremuak, etab.) KBEtik kanpoko eremuetara bideratzearen alde egiten duenez, Udalak KBEren ertzetan kokatutako aparkamendurako eta komunitatearen ekipamendurako planteatutako proposamena berriro azter dezan gomendatzen dugu, gune horiek aipatutako artezpideari jarrai diezaioten, eta KBEtik kanpora atera daitezen. Nolanahi ere, planean txertatu egin beharko dira Ingurumen Ingurumeneko Adierazpen Estrategiko honetako 1. xedapenari erantzunez IITak jasotzen dituen neurri babesgarri eta zuzentzaileak.

3. Beste hainbat zehaztapen.

a) EAEko kutsadura akustikoari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuak xedatutakoa betetzea. Bai ITTak eta bai hirigintza dokumentuak 3 motatako eremu akustikoak bereizten dituzte: a) motako eremu akutsikoak: lurraldeko bizitegi erabilerako sektoreak; b) lurraldeko industri erabilerako sektoreak; eta f) motako eremu akustikoak: garraio azpiegituren sistema orokorren eraginpeko sektoreak. Erreferentziako agirian ezarritakoari jarraituz, zonakatze hori erakusten duen plano bat jaso beharko da hirigintza dokumentazioan.

b) Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko 3/1998 Legea betetzea, jarduera sailkatuei dagokienez. Berrikusi beharko da gai hori nola txertatu den HAPOko hirigintza arau orokorretako 1. kapituluan. hirigintza jarduketei ekin aurreko lizentzia eta komunikazioen eskaera, tramitazioa eta egikaritze kontrola arautzeko ordenantzak; izan ere, planean jasotako xedapenak ez datoz bat 3/1998 Legean ezarritakoarekin, zeren eta lege honek bere jatorrizko artikuluak aldatu egin behar izan baitzituen barne merkatuko zerbitzuei buruzko 2006/123/EE Zuzentarauak, abenduaren 12koak, zehaztutakora egokitzeko. Eta zuzentarau horren helburua, hain zuzen ere, prozedurak eta izapideak sinplifikatzea zen. Horrela bada, ingurumenean kalterik eragingo ez duten jarduerek –hau da, jarduera kaltegabeak, hirigintza arau orokorren arabera, nahiz eta indarrean dagoen ingurumen legerian izendapen hori desagertu egin den– ez dute ezen prozedurarik jarraitu beharko ingurumenaren babesarekin lotutako lizentzia eskuratzeko. Alabaina, Udalak arauen IV. tituluaren I. kapituluan proposatutako prozedura ikusita, kontrakoa ondoriozta daiteke. Adibidez, 3/1998 Legearen arabera, eguzki-energia biltzeko instalazioek, ezarritako potentzia 50 kWetik 100 kWera bitartekoa dutenean bakarrik bete beharko dute aldez aurreko komunikazioa. Beraz, 5 kWetik beherako panel fotovoltaikoek ez dute prozedura hori jarraitu beharko, ez eta eguzki-instalazio termikoek ere, edonolako potentzia izanik ere, zeren eta kasu honetan ez baita betetzen prozedura hori aplikatzeko beharrezkoa den beste baldintza –eguzki-energia energia elektriko bihurtzea–.

c) Lege aipamenak eguneratzea:

– 17. Lur gaineko urak babesteko kategoriari dagokion D5 zona orokorraren araubide orokorra artikuluan, Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoaren 53. artikulua aipatu ordez 40. artikulua ipini behar da, zeren eta Plan Hidrologiko berriaren arabera –1/2016 Errege Dekretua–, hori baita lehentasunezko fluxuen eremuan erabilerak mugatzen dituen artikulua.

atravesarían el cauce para pasar hasta el término de Altzo. En el diseño final de estas redes cuando se lleve a cabo el proyecto de urbanización, deberán tenerse en cuenta las directrices y regulaciones incluidas en el Decreto 34/2015 para las infraestructuras, que, entre otros aspectos, priman evitar su construcción en el interior del ZEC, exigen la evaluación de su impacto sobre el ZEC y, en el caso de ser necesario el cruce de cauces, anteponen la utilización de infraestructuras de paso ya existentes (como puentes) frente a otro tipo de alternativas. Por otra parte, a la vista de que la directriz 8.D.1 dentro del apartado de las normas generales dedicadas al «Uso público y circulación», apuesta por canalizar la afluencia del público y las infraestructuras recreativas (aparcamientos, áreas recreativas, etc.) hacia zonas situadas fuera de los límites de la ZEC, se recomienda que el ayuntamiento revise su propuesta para el aparcamiento y el equipamiento comunitario situados a las orillas del ZEC para que se acomode a esta directriz y no se encuentren dentro de la ZEC. En cualquier caso, deberá incorporarse las medidas protectoras y correctoras que el ISA incorpore en respuesta a la Disposición 1 de esta Declaración Ambiental Estratégica.

3. Otras determinaciones.

a) Cumplimiento de lo establecido en el Decreto 213/2012, de 16 de octubre, de contaminación acústica de la CAPV. Tanto el ISA como el documento urbanístico diferencian 3 tipos de áreas acústicas: áreas acústicas de tipo a) sectores de territorio de uso residencial, áreas acústicas de tipo b) sectores de territorio de uso industrial y áreas acústicas de tipo f) sectores de territorio afectados a sistemas generales de infraestructuras de transporte. Tal y como se establecía en el documento de referencia, deberá incorporarse en la documentación urbanística un plano en el que se muestre dicha zonificación.

b) Cumplimiento de lo establecido en la Ley 3/1998 de Protección del Medio Ambiente del País Vasco en relación a las actividades clasificadas. Se deberá revisar la incorporación que se ha hecho de este aspecto en el Capítulo 1. Ordenanzas reguladoras de la solicitud, tramitación y control de la ejecución de las licencias y comunicaciones previas de las actuaciones urbanísticas de las Normas Urbanísticas Generales del PGOU, ya que las determinaciones incluidas no se adaptan a lo establecido en la Ley 3/1998, que tuvo que modificar su articulado original según lo especificado en la Directiva 2006/123/CE, de 12 de diciembre, relativa a los servicios en el mercado interior, la cual tenía como objetivo la simplificación de procedimientos y trámites. En consecuencia, aquellas actividades que no sean susceptibles de originar impactos sobre el medio ambiente –es decir, actividades inocuas según las Normas Urbanísticas Generales, término que ha desaparecido en la legislación ambiental vigente–, no estarán sometidas a ningún tipo de procedimiento para la obtención de licencia en base a razones de protección ambiental, al contrario de lo que parece inferirse del procedimiento propuesto por el ayuntamiento el Título IV, Capítulo I de sus normas. Así, por ejemplo, las instalaciones de captación de energía solar solo están sometidas a comunicación previa según la Ley 3/1998 si su potencia instalada es superior a 50Kw e inferior o igual a 100 Kw y, por tanto, no les será de aplicación este procedimiento a los paneles fotovoltaicos de menos de 5 Kw ni tampoco para ninguna instalación solar térmica sea cual sea su potencia dado que, en ese caso, no se da la otra condición necesaria –que se produzca la transformación de la energía solar en energía eléctrica–.

c) Actualización legislativa:

— En el artículo 17. Régimen general de la Zona Global D5. Zona correspondiente a la categoría de protección de Aguas Superficiales, se sustituirá la referencia al art 53. de la Plan Hidrológico del Cantábrico Oriental por el artículo 40 que es el artículo que establece la limitación de usos en zona de flujo preferente según el nuevo Plan Hidrológico –el R.D. 1/2016–.

EK\CV GAO-I-2017-00870

— 84. Akuiferoak kutsatzeko arriskua erakusten duten eremuak GB.1 baldintzatzailea erregulatzeko araubide orokorra artikuluan, abenduaren 22ko 390/98 Dekretuaren ordez, Leaburu-Txaramako udalerrian aplikatu beharreko legeria berria aipatu behar da: 112/2011 Dekretua, ekainaren 7koa, Nekazaritza lanetan Egoki Jarduteko Kodea onartzen duena; hain zuzen ere, Euskal Autonomia Erkidegoan nekazaritza jardueratik etorritako nitratoek ura kutsatzeko arriskua duten eremutzat jotzen ez diren guneetan aplikatu beharrekoa.

— 85. Urak har ditzakeen eremuak GB.2 baldintzatzailea erregulatzeko araubide orokorra artikuluan, Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa –400/2013 Errege DEkretua– aipatu ordez Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologiko berria (2015-2021) ipini behar da –1/2016 Errege Dekretua, 40. art.–. Era berean, Kosten Legeari buruzko aipamena ezabatu egin behar da, zeren eta lege hori ez baita aplikagarria Leaburu-Txaramako udal barrutian.

— 87. Kutsatuak egon daitezkeen lurzoruak GB.4 baldintzatzailea erregulatzeko araubide orokorra artikuluan, lurzorua ez kutsatzeari eta kutsatutakoa garbitzeari buruzko 2005eko otsailaren 4ko legearen ordez, legeria berria aipatu behar da –4/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoa–.

*Laugarrena.* Planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen 211/2012 Dekretuaren arabera, Udalak kontuan izan behar du plan hau onartu ondoren, segidan aipatuko diren alderdiak jakinarazi behar dizkiola, besteak beste, Ingurumeneko Zuzendaritza honi:

— Dekretu horren 15. artikuluan aipatutako dokumentazioa bitarteko elektronikoen bidez eskura daitekeela.

— Baldin eta plan bereziko jarraipen programa martxan jartzearen ondorioz, egindako ingurumen eraginaren ebaluazio estrategikoan aurreikusi gabeko ondorio kaltegarriak antzematen badira, kalte horiek minimizatzeko proposatzen diren neurriak, aipatutako dekretuaren 16. artikuluan xedatutakoari jarraituz betiere.

*Bosgarrena.* 21/2013 Legearen 27.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, adierazpen honek indarraldia galduko du, eta dituen berezko eraginak amaituko ditu, baldin eta, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta gero, Plana ez bada onartzen argitaratzen denetik bi urteko epean, gehienez.

Hau guztia denen jakinaren gainean jartzen da».

Donostia, 2017ko otsailaren 6a.—Lourdes Sanjuán Artegain, idazkari teknikoa. (870)

— Se sustituirá en el artículo 84. Régimen general de regulación del condicionante GB.1 Áreas vulnerables a la contaminación de acuíferos la referencia al Decreto 390/98, de 22 de diciembre, por la nueva legislación de aplicación en el término municipal de Leaburu-Txarama: Decreto 112/2011, de 7 de junio, por el que se aprueba el Código de Buenas Prácticas Agrarias aplicable a las zonas de la Comunidad Autónoma del País Vasco no declaradas como vulnerables a la contaminación de las aguas por los nitratos procedentes de la actividad agraria.

— Se sustituirá en el artículo 85. Régimen general de regulación del condicionante GB.2 Áreas Inundables la referencia al Plan Hidrológico de la DH Cantábrico Oriental –R.D. 400/2013–, por el nuevo Plan Hidrológico de la DH Cantábrico Oriental (2015-2021) –R.D 1/2016, art. 40–. Asimismo, se eliminará la referencia a la Ley de Costas que no es de aplicación en el término municipal de Leaburu-Txarama.

— Se sustituirá en el artículo 87. Régimen general de regulación del condicionante GB.4 Suelos potencialmente contaminados la referencia a la Ley para la prevención y corrección de la contaminación del suelo del 4 de febrero de 2005, por la nueva legislación –Ley 4/2015, de 25 de junio, para la prevención y corrección de la contaminación del suelo–.

*Cuarto.* De acuerdo con el Decreto 211/2012 por el que se regula el procedimiento de evaluación ambiental estratégica de planes y programas, el ayuntamiento debe tener en cuenta que, una vez aprobado este plan, está obligado a realizar las siguientes notificaciones a, entre otros, esta Dirección de Medio Ambiente:

— La disponibilidad por medios electrónicos de la documentación contemplada en el artículo 15 de dicho Decreto.

— Si como consecuencia de la puesta en marcha del programa de seguimiento del plan especial, se detectaran efectos adversos no previstos en la evaluación de impacto ambiental estratégica realizada, las medidas propuestas para su minimización en cumplimiento del artículo 16 de dicho Decreto.

*Quinto.* De acuerdo con lo establecido en el artículo 27.1 de la Ley 21/2013, la presente declaración perderá su vigencia y cesará en la producción de los efectos que le son propios si, una vez publicado en el Boletin Oficial de Gipuzkoa, no se hubiere procedido a la aprobación del Plan en el plazo máximo de dos años desde su publicación.

Lo que se publica para conocimiento general».

San Sebastián, a 6 de febrero de 2017.—La secretaria técnica, Lourdes Sanjuán Artegain. (870)


EK\CV GAO-I-2017-00870